

Kuartel berriak digitalak dira

Lehendik ezaguna zitzaien ingurumaria birmarratzuta aurkezten digu Google Maps ahalguztidunak, begi baka-reko erreinuak lurrazala mende hartu izan balu bezala. Mapak ez dira-eta inoiz izan munduaren leiho neutralak, eremua irudikatzeaz gain egilearen optika ere txertatzen digute: koloreztatu, azpimarratu eta itxuraldatuta dator deskribatutako atala. Adostutako kode kulturalen emaitza da zehaztasunez irudikatutako geografia.

Egokituak eta pertsonalizatuak dira mapak; dagoeneko publikitateak bat egin du trama fisikoarekin. Informaziozko geruza gainezartzen zaigu begiaren kornean, filtro subjektibo baten arabera sailkatuz ikuspegi. Ekonomia berriaren gidoiari jarraiki

eremu *naturala* antolatu beharra zegoen, merkantzia bihurtu, zuzenki kontsumitu ahal izateko. Seinalatzen denaren eta saihesten denaren bitartez moldatuko du espazioaren esperientzia gure begiradak. Begirada lausoa hiperealismoz ordezkaturiko du teknologiak, irudiaren industriak estali du irudiaren politika. Hala, lurraldeak eta mapak bat egingo dute, gauza bera izango dira aurrerantzean.




LAUHAZKA
Ibon Aranberri

Irudiaren egin duenean dena da mapa, dena da informazio numeriko. Behin mundua digitalizatuta osatu da misioa, eta maparen zerbitzua eta zaintza datoz ondoren. Honela sortu dira kuartel berriak. Konpainia digital nagusiek egoitza berrien proiektuak aurkeztu dituzte: neurria irudikatutako eraikuntza galantak. Irudiaren korporazioak hartu du materialtasuna. Ekosistema digitalak barnean hartuko dituzten ekosistema fisikoak dira, eta konpainia teknologikoen auto-irudia islatzeko ambizioa adierazten dute, egokierazko arkitektura zehatzak kalkulatuak, hizkuntza digitalak sortzen digun laino efektua berdintzeko, agian. Ez dute bandera edo ikur nabarmenik, abstraktuak dira kanpotik.

Batean basoz inguratuta ageri da superegitura zirkular eskerga, *Pentagono* biribildua. Unibertso digitalaren eran, haren formak ez du ez atze ez aurre, bat da barne eta kanpotik, muzin egiten dio ordena urbano tradizionalari. Zero luze bat da, *loop* perfektua, barnean ezer ez balu bezala. Eraikuntza hiperteknologiko eta natura idealizatuzko haluzinazio azeleratua dirudi.

Beste batek mendixka dirudi urrunetik, inon ezagutzen den trenkada gabeko bulego



Apple Campus proiektua, Cupertino. Foster + Partners arkitekto taldearena. F+P

zabalena du azpian, milaka langilerentzat aurreikusia, elkarren ondoan eta elkarrekin gertu lan egiteko. Natura ulertzeko era berritzailea eman nahi da aditzera. Paisaian desagertzen da lana, garden bilakatzen da, bereizezin forma organikoekiko, izan zuhaitz, belar edo haiz.

Kupula geodesikorik ezin falta, *Biosphere 2* esperimentu haren itxurako unitate esferikoak. Ingurune naturala lan esparru gisa simulatzen dute bere barnean. Mikroklimadun habitat isolatuak, egurats aldaketazko erretorikaz jantziak. Teknologiak ahalbidetatutako ekosistema artifizialak, erradikalitate neoliberalen ikur berri.

Belar zelaiz estalitako teilatu zabalak ere bai. Milaka metro karratu barnean, erabat konektatuta, edozein gune eta edozein langile minutu gutxiren buruan elkarganatzeko moduan, aldebereko antolamendua du. Hurbiltasuna eta hierarkiarik eza dira, antza, kuartelon ikur. Batean zein bestean, na-

Basoz inguratuta ageri da superegitura zirkular eskerga, 'Pentagono biribildua'. Unibertso digitalaren eran, haren formak ez du ez atze ez aurre, bat da barne eta kanpotik, muzin egiten dio ordena urbano tradizionalari

turaren sena dago present, naturaren sen artifiziala. Beira eta belar bilakatutako dogmak. 1960ko hamarkadako tekno-utopia hippy bukoloikoaren oihartzun argia dute, *management* teoria eta marketin lege agrebosiboz atondua.

Hippy komuna aitzindariak espazioa zuten sinesbide; dimentsio espazialaren baitan jabetza, familia edo energiaren erabilera alternatiboak imajinatu zitezkeen gizarte arruntaren bizkar. Idealizatutako komunitate haien gaur egungo bertsio sintetizatu erraldoiok jendartetik aldentzen joan dira era berean. Haiek bezala gune autonomoak bilatu dituzte, fede bera partekatu eta eredu generikoak gorpuztu ahal izateko munduarekiko distantzian. Esperimentu zarpaill haieran bezalaxe, ideia urbanoekiko nolabaiteko deskonexioa ematen da. Berezko mundu bilakatzen da konpainia bakoitza, naturarekiko ikuspegi propioan oinarritua, ideia eta lege zorrotzez eraturia.

Ideologia kaliforniarreko gotorleku inperialak dira, segurtasun geruzaren babesean entseatzen dira diseinuzko prozesu holistikoa eta totalitarioak. *Kanpoko munduak* pairatuko du berrantolaketa digitalaren efektu sakona, eraginkorki ezarriak dira trikimailurik ilunenak. Kuartel horietatik gure bazterrak digitalki kolonizatuak izan dira, behinola ihesbide eta bakardaderako paraje izandako baso, ibai eta muinoak lokalizazio kodifikatuak dira orain, ez dute izen eta memoriarik, koordentu soil dira mapa koloretuaren gainean. Halako administrazio ikusezina ekiditea ia ezinezko bilakatu zaigu; zerbait egitekotan muturreko eskemak beharko litzuzke.



DENA ETA EZTENA
Juan Luis Zabala

Huts egiten ez duen heroi antiheroikoa

Poza ematen du Mari Sol Bastidaren *Memoriak*. Mikel Laboaren biografia bat liburua irakurketak. Niri behintzat poza eman dit. Poza da batik bat liburua irakurri ahala sentitu dudana. Alderdi mingotsei uko egin gabe –Mari Sol Bastida zorrotzegia da, bere buruarekin batez ere, tranparik txikiena ere egiteko, eta ez du funtsezkoa, garrantzizkoa edo pertinentea iruditu zaion ezer ezkatatu –, liburua Mikel Laboa pozik bizi izan zelako ideia utzi dit, gaixoaldi ugari eta sarritan luzeak pairatu, eta bestelako arazo eta krisi zaileri ere aurre egin behar izan zien arren. Hortik nire poza.

Mikel Laboaren lana eta bizitza ezagutarazteko ahaleginean, batzuetan aztoragarria ere gerta daitekeen gertutasun bateraino eramaten du liburua irakurlea. Orduan, irakurleari –berdin dio Mikel Laboa oholztan baino eza gutu ez bazuen –, gertutasun horretan, samurtasunez oroitzen den aspaldiko lagun bat iruditzen zaio Mikel Laboa, eta hura berriz ikusteko gogoia pizten zaio, eta hura kantuan entzutekoa, eta oholztza gainean Mikel Laboa izateko haren modu partikularra zuzenean mirestekoa.

Liburuari esker, azken 50 urteotako euskal musikagintzaren historia hobeto ezagutzeaz gain, beste geruza bat erantsi diogu gure izaeraren parte bihurtua dugun kantari, musikari, musikagile eta oholztza gaineko artista horren ezagutzari. Are maiteago dugu aspaldidanik gure barruan bizi den eta inoiz huts egiten ez digun heroi antiheroiko erraietaraino apal eta harrokeriarako genetikoki ezindu hori. Huts egiten ez duen heroi antiheroikoa baita Mikel Laboa. Lehendik ere bannuen irudipen hori, eta indartu egin dit Mari Sol Bastidaren *Memoriak*. Mikel Laboaren biografia bat-en irakurketa pozgarriak.